



Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea
Semana de Cine
Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy
Film Festival



LARROTXENE BIDEO



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

Maria Fontán da OIHUA! sorkuntza ekimenaren irabazlea

María Fontán, “**Zerua hautsi zen gaua**” laburmetraia proiektuarekin, izan da **Oihua!** sorkuntza ekimenean aukeratutako sortzailea.

Donostia Kulturak, San Sebastian-Gipuzkoa Film Commissionek eta Gazteak bultzatutako ekimena da **Oihua!**. Euskaraz filmatzen den fantasiako generoa indartzeko helburuarekin sortu da. Deialdia 35 urte arteko sortzaile hasiberrientzat izan da. Irabazleak Paul Urkijo zuzendariaren aholkularitza jasoko du lan prozesuan zehar eta erakundeek 7.000 euro inguruko ekoizpen aurrekontua jarriko dute laburmetraia Gipuzkoan filmatu eta bukatzeko. **Larrotxene Bideoren** tutoretzapean eta elkarlanean ekoiztuko da gidoia.

Lehenengo edizio honetan 42 gidoi jaso dira, 39 egile gazte desberdinek sortutakoak. Haien artean 9 emakume sortzaile aurkeztu dira. Jatorriari dagokienez, gehienak Gipuzkoatik jaso dira, baina baita ere Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Bartzelonatik.

Epaimahaikideak izan dira Paul Urkijo zinegilea eta erakunde antolatzaileen ordezkariak: Lorea Hernández (San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission), Unai Guerra (Larrotxene Bideo), Josemi Beltrán (Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea) eta Arkaitz Basterra (gidoilaria, Gaztearen ordezkaria). “**Zerua hautsi zen gaua**” aukeratzeko irizpideak izan dira proposamenaren sormena eta kalitate artistikoa, bideragarritasuna ekoizpenaren ikuspegitik, lokalizazioak Gipuzkoan eta euskararen erabilera.

Epaimahaiak proiektuaren alderdi hauek azpimarratu ditu: “Istorioaren egitura aberatsa eta euskal mitologia eta mundu moderno baten arteko nahasketa polita, elkarriketa eta irudien artean atmosfera erakargarriak sortzeko potentziala eta zinegilearen ikusmen kontzeptua”.

María Fontán Donostiakoa da, Ikus-Entzunezko gradua dauka eta TAI zentroan ikasi du. Haren hitzetan, gidoi hau da “nire maitasun gutuna nire munstro eta lurraldearentzat”.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes



ORAIN
KULTURA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismo Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo

donostiasustapena
fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIARAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT





**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**



LARROTXENE BIDEO



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

SARIA

Aukeratutako proiektua honako ekarpen hauekin sarituko du erakundeak:

- Gidoiko profesional batek azken idazketa-prozesuan aholkularitza ematea.
- Filmaketaren preproduziko eta antolamenduko prozesuan zehar laguntzea.
- **Paul Urkijo** errealizadorearen aholkularitza teknikoa eta zuzendaritzaren arlokoa.
- Larrotxene Bideo komunitatetik datorren film laburra grabatzeko eta postproduzitzeko, ikus-entzunezko ikasle eta profesionalen osatutako talde teknikoa.
- Larrotxene Bideotik datorren film laburra egiteko eta editatzeko beharrezkoak diren makineria eta materialak.
- Larrotxene Bideok kudeatutako produkzio-gastuen poltsa.
- San Sebastian-Gipuzkoa Film Commission-en laguntza eta aholkularitza aurreproduziko- eta produkzio-fasean: kokalekuak bilatzeko eta filmaketa egiteko beharrezkoak diren baimenak lortzeko lankidetzak.

Film laburra **Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteko 2020ko edizioari dagokion** programazioaren parte izango da. Hautatutako pertsona filmeko kredituetan agertuko da, eta bertan duen papera egiaztatuko da. Aukeratutako ideiak 300 €-ko ordainsaria jasoko du gidoia sinatu duen pertsonarentzako egile-eskubideen kontzeptupean. Film laburrak **Larrotxene Bideoren** ekoizpen baten tratamendua izango du, zinemaldietan izena emateko eta litezkeen sariak jasotzeko.

Harremanetarako:

Gorka Iribar

943 48 16 79

kulturekintza@donostia.eus



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes



ORAIN
KULTURA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismo Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo

donostiasustapena
fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIARAKO GARAPEN EKONOMIKOAK
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

